ALTZOKO UDALA

KONTRATU MOTA:	HORNIDURA
PROZEDURA:	IREKIA (156 ART.)
ARAUPEKO KONTRATUA	BAI [ ] EZ [X]
ERREKURTSO BEREZIPEKO KONTRATUA	BAI [ ] EZ [x]

Tramitazioa [X] **arrunta** [ ] **presakoa**

Tramitazio aurreratua [ ]

ALTZOKO OSTATUA OSATZEKO LANAK; 1. ETA 2. SOLAIRUAK ALTZARIZ HORNITZEKO.

BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA

1.- BOTERE ESLEITZAILEA	
Administrazio kontratatzailea	ALTZOKO UDALA
Kontratazio organoa	OSOKO BILKURA edo PLENOA
Departamentua edo kudeaketa zerbitzua	Hirigintza saila
Departamentuaren helbidea	Altzoko Udaletxea, Altzo Muño 73, 20268 Altzo.
Helbide elektronikoa	udala@altzo.eus (plegu administratiboa)
Altzoko udalaren helbide eta ordutegia	Altzoko Udaletxea, Altzo Muño 73, 20268 Altzo. Ordutegia: 9:00-14:00
Kontabilitate arloan eskumena duen administrazio organoa	Kontuhartzailetza Saila

2.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA:
http://www.altzo.eus/kontratatzailearen-profila

3.- KONTRATUAREN XEDEA
Kontratu honen xedea Altzo Muño 72an dagoen Altzoko Ostatua osatzeko lanak egitea da; 1. eta 2. Solairuak altzariz hornituz, 1. solairuan jangela handituz, herritarrentzat espazio edo egongela sortuz, eraikinean ostatu hartuko dutenentzat sukaldea jarriz eta 2. Solairuan ostatu hartzeko 3 gelak

ALTZOKO UDALA

hornituz. 1. Solairuko oficce edo jatetxeko sukaldeari lotuta doan gunea ez da proiektu honetan sartzen. Horniketaren proiektua Udalak landu du, obra proiektuari lotuta hasi zelarik eta orain hirigintza sailean zehaztu delarik; horniketaren zerrendak eta planoak osatzen dute proiektua.

Sortaka lizitatzeko aukera	BAI		
	EZ	X	
JUSTIFIKAZIOA: Altzoko Ostatuaren jarduera handitzea			

LOTE	ZEHAZTAPENA	AURREKONTUA
1	ALTZOKO OSTATUA OSATZEKO LANAK, 1. ETA 2. SOLAIRUAK ALTZARIZ HORNITZEA	**74.717,00 €** (61.750,00 + 12.967,50 BEZ)

KODEA CPV	ZEHAZTAPENA
39000000-3 Altzariak	Hornidura; altzariena

4.- KONTRATU MOTA	
KONTRATU MOTA	HORNIDURA; altzariena

5.- LIZITAZIO AURREKONTUA		
Prezioa zehazteko sistema	Prezio unitarioak	X
	Kontratuaren parte bat oroharreko prezioan	
	Kontratu osoa oroharreko prezioan	
Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZa barne)	**74.717,00 €**	
Ordainketa, ondasunen entrega bitartez: EZ		

6.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA (BEZa KANPOAN)
Zenbatekoa: 61.750,00 €

7.- BAJA AUSARTEGIA (147 ART)	**BAI**	**EZ**
	X	
FORMULA APLIKAGARRIA: Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio Publikoetako Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak , 85 art.an jasotakoa.		

8.- FINANTZAKETA	Portzentajea edo kopurua
Altzoko Udala	45.577,37 €

ALTZOKO UDALA

Eusko Jaurlaritza Ekonomia Garapena; Erein 2022	29.139,63 €
Guztira	**74.717,00 €**

9.- URTEROKOAK

EKITALDIA	AURREKONTU PARTIDAK	ZENBATEKOA
2023	Kreditua Segoretxe egokitz. III (altzariak) 10000.622.430.00.01	74.717,00 €

Kontratuaren xede diren horniketak 2023ko aurrekontu orokorreko 10000.622.430.00.01 partidatik finantzatuko dira. Hasierako Aurrekontuan nahikorik ez zegoenez, kreditu gehigarriak modalitatean kreditu aldaketa izapidetu da, diru laguntzak kontutan hartuta eta kreditu gerakinaren kargura osoki finantza dadin.

10.- BETETZE/IRAUTE EPEA

Epe osoa: 3 hilabete, kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita. Helburua izango da 2023ko abenduaren 31an amaituta egotea, 2024ko hasieran, jangela berria eta ostatua hartzeko gelak martxan jartzeko.

Epe partzialak	BAI		
	EZ	**x**	

11.- LUZAPENA

BAI		
EZ	X	

12.- ORDAINTZEKO ERA

Egindako horniketen fakturak Udalak onartu eta hogeita hamar eguneko epean.

Interesen sortzapen konputua hasi ahal izateko, hornitzaileak faktura aurkeztu beharko du dagokion administrazio erregistroan eta indarrean dagoen legedia betez faktura elektronikoari dagokionean, betiere, hogeita hamar eguneko epean lanak entregatzen direnetik hasita.

13.- BERME EPEA

BI URTEKOA (hobetu daitekeena) epea ezartzen da harrera formala egiten denetik hasita, berme aldi gisa, Sektore Publikoko kontratuen legeak aurreikusitako ondorioetarako.

14.- HARRERA ETA ENTREGA/BETETZE LEKUA

Altzoko Altzo Muño 72an dagoen Segoretxe eraikinean dagoen Altzoko Ostatuan, 1. eta 2. solairuak

15.- ALDAERAK ONARTZEA

BAI		EZ	X	

ALTZOKO UDALA

Baldintzak, modalitateak eta alderdiak

16.- PREZIO BERRIKUSPENA				
BAI		EZ	X	
Berrikuspen formulak:				

17. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA
AGIRI ADMINISTRATIBOAK: Plegu honetako 18. Atalean aipatutakoa.
JUDIZIO BALORAZIO IRIZPIDE-PROPOSAMENA: BAI
BALORAZIO AUTOMATIKOKO IRIZPIDE PROPOSAMENA: Plegu honetako 20 klausulan ezarritakoa.
AGIRIAK AURKEZTEKO EPEA: 26 EGUN NATURALEKO EPEA DAGO KONTRATATZAILEAREN PROFILEAN ARGITARATZEN DEN biharamonetik kontatzen hasita. Zehazki esanda **2023ko uztailaren 7an eguerdiko 14:00etan amaituko da agiriak aurkezteko epea.** **AGIRIAK AURKEZTEKO LEKUA:** Altzoko Sarrera Erregistro Orokorra 1 apartatuan adierazitako ordu eta tokian. Postetxe bidez ere aurkez daitezke (posta elektronikoz udala@altzo.eus helbidean egiaztagiria erantsi beharko da agiriak aurkeztu direneko egun eta ordua adieraziz; ez bada egiaztagiririk aurkezten gehienezko epe eta orduan,ez aurkeztutzat emango da)

18.- BAIMEN EDO GAIKUNTZA ENPRESARIAL EDO PROFESIONALAK, KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA, ETA KAUDIMEN PROFESIONAL EDO TEKNIKOA
BAIMEN EDO GAIKUNTZA ENPRESARIAL EDO PROFESIONALAK :EZ

19.- BITARTEKOAK NAHITAEZ ATXIKITZEKO KONPROMISOA
EZ

20.- AZPIKONTRATATZEA				
-Azpikontratatzea aurreikusten den kontratu zatia eskaintzan adierazteko obligazioa, adieraziaz eskaintzan azpikontratatzekoa den zenbatekoa eta azpikontratisten izena edo enpresa profila			EZ	X

21.- BERMEAK			
BEHIN-BEHINEKOA	BAI		
	EZ	X	
BEHIN BETIKOA	BAI	X	Zenbatekoa: adjudikazioaren prezioaren%5 (BEZ kanpo)
	EZ		
OSAGARRIA	BAI		

ALTZOKO UDALA

	EZ	x	

22- ESLEIPEN IRIZPIDEAK

I – ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

a) BALIO JUDIZIOETAN OINARRITUTAKO IRIZPIDEAK: 40 puntu

2. sobrean sartu beharko den Memoria da; DISEINU PLAN ZEHATZA azalduko duen Memoria da.

Memoria honetan gaur egungo Altzoko Ostatua eraikuntzaren azterketa, 0 solairuan dauden zerbitzu eta altzarien analisia egin ondoren, 1. eta 2. Solairuetan (1. Solairuko office-a izan ezik) bertan ipini beharreko altzarien diseinua proposatuko da.

Azterlana erabatekoa izan beharko da, altzarien materiala, kolorea, estiloa, e.a. proposatuko dira, zerbitzu guztien koherentzia kontuan izanez. Memorian altzarien ereduak (argazkiak), karakteristikak, e.a definitu beharko dira.

Halaber, instalazio lanak egiterakoan, izan daitezkeen zailtasun teknikoak adieraziko dira eta Ostatuko eguneroko jardueretan afekzioak murrizteko proposamenak azaldu beharko direlarik.

Epe osoak ezingo du inoiz lizitazioaren epea gainditu.

Amaitzeko, Memoria honetan Enpresa hornitzailearen Euskararen erabilera azalduko da, bai Udalarekin harremanean, baita enpresaren eguneroko jardueran ere (euskararen erabilera ziurtagiriak,e.a.).

Aurkeztutako Memoriarekin gutxienez 6 puntu eskuratu beharko dira.

b) FORMULATAN OINARRITZEN DIREN IRIZPIDEAK: 60 puntu

3. sobrean sartuko dena eta honela banatuta:

1) **ESKAINTZA EKONOMIKOA (50 puntu arte)**
Proposamen ekonomiko laburtuarekin batera aurrekontua desglosatuta eta unitateak adieraziz aurkeztuko da.
Onarturiko proposamenek gordetzen dituzten eskaintza ekonomikoen puntuaketen kalkulua, haien arabera egingo da, interpolazio linealaren bidez, P1 (baxuena=puntu gehiena) eta P2 (baja 0=puntu guxiena) puntuek definitutako zuzenaren arabera, eta aipatu zuzenaren segmentuan, haiek mugatuta.
Aipatu puntuak honakoak dira:
P1- Eskaintza ekonomikoenari dagokio (baja maximoa). Horri puntuaketa bat egokituko zaio, handiena, berdin Pmax puntu.
P2- Lizitazio tipo prezioari dagokiona. Horri puntuaketa egokituko zaio, minimoa, ondorengo formula erabiliz aterako dena:
Lizitazio tipo prezioari dagokion puntuaketa minimoa:
Pmin = Pmax x (1-Bmax)
(Bmax = baja maximoa)
Baja (B), Lizitazio tipoa eta eskaintza ekonomikoaren arteko diferentzia dela ulertzen da, lizitazio tipo prezioagatik zatituta.
Eskaintzak neurrigabe edo anormal izaeradun prezioak dituela usteko da baldin eta eskainitako prezioa eskainitako bataz besteko guztien %10eko beherakada suposatzen badu.

2) KOSTU GEHIGARRIRIK GABEKO HOBEKUNTZA MATERIALAK (5 puntu arte)
Aurkeztutako hobekuntzen balio ekonomikoa aterako da eta bere proportzioa, eskaintzen bataz bestearekiko. Horren arabera, gehienez 5 puntu arte balioztatuko da.

3) BERME EPEA (5 puntu arte)
Administrazio Klausula Partikularren Pleguan ezartzen den urte bat gainditzen dituen beste urte beteko denbora tarte bakoitzagatik, 1 puntu emango dira. Gehienez 5 puntu arte.

23.- BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

ALTZOKO UDALA

Ez.
24.- AURREIKUSITAKO KONTRATU ALDAKETAK
EZ
25.- KONTRATUKO FUNTSEZKO BETEBEHARRAK
Kontratu honi aplika dakizkiokeen funtsezko betebeharrak dira SPKLn eta Baldintza-agiriaren klausuletan aurreikusitakoak.
26.- ZEHAPENAK
Kontratuen Legean jarritakoak.
27- LIZITATZAILEAK KONPENTSATZEKO ZENBATEKOA
Ez da ezarri.
28- PRESTAKETA LANEI DAGOZKIEN KONTURAKO ORDAINKETAK
EZ
29.- BESTE ZEHAZTAPEN OSAGARRI BATZUK
Ez
30.- KONTRATAZIO MAHAIA
1 LEHENDAKARIA: Altzoko Udaleko alkatea 2 KIDEA: Xabier Rezabal Gurrutxaga, arkitektoa 3 KIDEA: Turismo edo/eta Kultura arloko zinegotzia 4 KIDEA: Udaleko idazkaria, idazkari lanetan

Altzon, 2023ko maiatzaren 31
Stua. Txomin Rezola Clemente

ALTZO'KO UDALA